

MOZIO ARRUNTA

AÑORGAKO BIDEGORRIA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Añorgako bidegorria dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Urtebete luze igaro da Añorgako bidegorria itxi zutenetik luizi arriskuarengatik. Gipuzkoako Foru Aldundia da konponketa egin behar duen administrazioa, baina oraingoz ez du aurrerapausorik eman bidegorria konpontzeko. Hortaz, bertako bidea itxita egon da.

Donostiako Udal Gobernuak emandako azalpenen arabera, luizia sortu zen eremuan ikerketa tekniko bat egin dute: "Irtenbidea konplexua eta garestia da. Izan ere, pilote txikiz osaturiko pantaila bat jarri beharko dute hamabi metroko sakonerarekin. Horrekin batera, sare bat jarriko dute mendi magalari eusteko, eta ingurua txukundu".

Hori dena aurrera eramateko proiektu bat idatzi behar dutela jakin dugu, eta gastuaren zenbatekoa 150.000 eurokoa izango dela. Aldiz, bidegorria berriz irekitzeko eperik ez dago. Eta badirudi lanak ere ez direla oraindik esleitu.

Auzotarrek eta eragileek ez dute orain arte beste informaziorik jaso Foru Aldundiaren partetik.

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

- 1.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Añorgako bidegorriaren inguruko egoeraren berri eman diezaiela bertako auzotarrei eta eragileei.
- 2.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Añorgako bidegorria



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

konpontzeko lanak lehenbailehen esleitu ditzala, hura lehenbailehen irekitzeko.

Donostian, 2022ko uztailaren 1ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea